

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIAHERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Toki Administrazioak udalei 1,8 milioi euro baino gehiagoko konpentsazioa eman die hobari fiskalengatik

Udal-zergen kobrantzaren salbuespenak dira, kontribuzioa edo OHZ (ondasun-higiezinaren gaineko zerga) eta EJZ (ekonomia-jardueren gaineko zerga) esaterako, eta haiek kooperatibek edo fundazioek balia ditzakete

Asteazkena, 2016.eko abenduak 28

Nafarroako Gobernuak 1.871.615,48 euro eman die Nafarroako 92 toki-erakunderi konpentsazio moduan zenbait udal-zerbaren hobariagatik. 2014, 2015 eta 2016an aurkeztutako eskaerak 2017aren hasieran ordainduko dira, nahiz eta ziur asko 2016ko eskaera batzuk (azarotik aurrera aurkeztutakoak) datorren urtean izapidetuko diren dagoen partida agortzen denean.

Kompentsazio horiek (haien zenbatekoa eta banaketa gaur jakin ditu Foru Gobernuak bilkuran), udal-zergen kobrantzaren salbuespen bidez egiten dira, esaterako: kontribuzioa edo OHZ eta EJZ, eta haiek legez zenbait erakunde pribatuk balia ditzakete, kooperatibekin edo fundazioekin gertatzen den moduan.

Partikularrentzako eta enpresetarako hobariak ere konpentsatzen dira, udalerrian izandako uholde-kasuengatik edo beste larrialdi batzuegatik emandakoak, Nafarroako Gobernuak hala deklaraturakoak.

Kompentsazio handiena jasoko duten udalerriak honako hauek izango dira: Iruña (877.342,98 euro); Tafalla (89.724,92 euro); Atarrabia (84.163,66); Tuterak (61.075,68 euro); Castejon (58.686,18 euro); Lakuntza (58.588,96 euro); Martzilla (53.312,69 euro); Noain (52.987,17 euro); Azagra (50.470,46 euro); eta Aranguren (47.382,16 euro).

Hobariengatik dagokien konpentsazioa jasoko duten udalak, aurrez eskatutakoaren arabera, erantsita dagoen taulan kontsulta daiteke.